

# **1. atala.**

## **Telebistagintzaren panorama**

Telebistagintzaren oinarri teknologikoa, legala, soziologikoa, ekonomikoa eta publizitarioa asko aldatu dira azken urteotan.

Duela gutxi arte, lurreko seinalearen transmisio-sistema analogikoa zen nagusi. Europan, gainera, nagusiki, zentralista, monopolikoa eta publikoa bere kudeaketan.

Garapen teknologikoa eskaintzaren ugaritzearen eta birrarauketa legelaren eskutik etorri zen. Marko aldatu-berriaren lehen adierazgarriak izan ziren satellite eta kable bidezko transmisio-sistemak. Baina, baita ere, telebista-kanal pribatuen etorrera. Hala ere, zalantzarik gabe, digitalizazioa da telebistagintzaren panorama errotik aldatu duen faktore nagusia.

## **1. ATALA: TELEBISTAGINTZAREN PANORAMA**

1. Estatu frantziarreko telebistagintzaren ibilbidea
  - Gerra arteko garapen-etena
  - Koskortzen hasitako hedabidea
  - 1973an, France Régions 3 izeneko hirugarren kanal publikoa jaio zen
  - 80a, aldaketan hamarkada.
  - Digitalizazioak eragindako birrantolaketa
2. Estatu frantziarreko telebistagintzaren gaur egungo egoera
3. Estatu espainiarreko telebistagintzaren ibilbidea
  - 1956: TVEren sorrera
  - 60ko hamarkadak medioaren zabalpena ekarri zuen
  - 70eko hamarkadaren geldialdia
  - 82an, Estatuaren monopolioa hautsi: ETB jaio zen
  - 90ekoan, telebistagintza pribatuaren etorrera
  - Digitalizazioaren abiada
4. Estatu espainiarreko telebistagintzaren gaur egungo egoera
5. Euskal Herriko telebistagintzaren ibilbidea
  - 1982: EITBren sorrera
  - 1986, maiatzaren 31n ETB 2k emanaldiei ekin zion
  - 1992 “Euskal Telebista. Informe”
  - 2000ko Plan Estrategikoa, digitalizazioaren atarian
6. Euskal Herriko telebistagintzaren gaur egungo egoera
7. Bibliografia
8. Gehigarriak
  - Intereseko webguneak

Ikuspegi teknologikotik begiratuta, XX. mendearen lehen bi hamarkadek telebistagintzaren sorrera-data jarri zuten. Bata bestearen segidan, Zworykin-ek, Baird-ek eta Farnsworth-ek irudiak eta soinuak igortzeko eta gero jaso ahal izateko asmakizunak gauzatu zituzten. Baina, orduan *mass media*en artean nagusi zen irratia-ren lehentasunari itzala egingo zion hedabide sortu berria koskortzeko, urteak pasa beharko ziren.

Teknikoki eta baita egituratzeari eta erakundetzeari dagokienez ere, 30eko hamarkada arte etzen BBC sortu, eta, lehen telebista-kate horren ondotik, Amerikako Estatu Batuetako eta Mexikoko hainbat. Gero, jakina denez, herrialde guztietara zabaldu zen ikus-entzunezko paradisuan jainkotu den hedabidea.

Telebistagintza eta berari egokituriko hobekuntza teknologikoei zein hedapenari eta garrantzi sozialari, ekonomikoari, kulturalari eta komunikatiboari dagokienez, hazi besterik ez da egin jaio zenetik.

## ***1. ESTATU FRANTZIARREKO TELEBISTAGINTZAREN IBILBIDEA<sup>1</sup>***

### ***1.1. Gerra arteko garapen-etena***

1935ean lehen telebista-emanaldiak aieratzen hasi ziren arren, 1949 arte ez zen RTF (Radiodiffusion-Télévision Française) erakunde publikoa sortu, Informazio-ministeritzaren esanetara, hain zuzen ere.

Munduko bigarren gerra-osteko giroan telebistagintzak ez zuen berebiziko garrantzia lortu, ez politikorik, ezta sozialik ere. Garai hartan, oso txikia zen telebista-aparatua zuten etxebizitzien kopurua.

1958an, De Gaulle generala agintean zegoela, monopolioa indartu egin zen eta Estatuak produkzioaren, programazioaren eta emisioaren ardurak bere gain hartu zituen. Medioaren eragin sozialaz eta politikoaz jabetzen hasiak ziren agintariak. Hargailuen kopuruak gora egin zuen nabarmen: 1960an, %13 eta 1970an, %70.

### ***1.2. Koskortzen hasitako hedabidea***

1964an, RTFk ORTF izena hartu zuen, eta bere bigarren kanalaren (Antenne 2) emanaldiak aieratzen hasi zen. Monopolio publiko gisako telebista, Estatu frantziarreko erregio desberdinetara zabaldu zen 1963-1965 bitartean, estazio deszentralizatu xumeak sortuz; eta haietariko sei albistegi propioak emititzen hasi ziren.

---

1. Ardatz kronologikoa duen azpikapitulu honetarako, oso baliagarria suertatu zaigu Bardou-Boinier-en eta Pailliant-en (1999) lana.

Hamarkada berean, lehen kanalean (Télévision Française 1) —eta gero bigarrean ere bai— publizitatea sartzen hasi zen, finantzazio mistoaren bidea irekiz.

### ***1.3. 1973an, France Régions 3 izeneko hirugarren kanal publikoa martxan hasi zen***

Kanal berria, izenak esaten duenez bestela, ez da deszentralizazioaren ondorio, ezta ere horretarako tresna gisa funtzionatu nahi zuen kanala.

Gainera, orduko testuinguruan, TF 1, Antenne 2 eta France Régions 3 (gaur egungo France 3) elkarren lehian aritu ziren.

### ***1.4. 80a, aldaketan hamarkada***

1982an, ikus-entzunezko komunikazioaren lege berria kaleratu zen, eta, beste batzuen artean, irrati lokalak baimendu zituen; programazioaren monopolioa hautsi zen; eta Haute Autorité de la Communication Audiovisuelle (HACA) izeneko erakundea sortu zen.

Telebistagintzak zentralizatuta segitu zuen “Plan Câble” izeneko egitasmoaren gainera. Kablea baliatuz eta etxebizitzaren erdia konektatzeko helburuaz eginiko plangintza hark kale egin zuen, deskoneksio lokalak eta kanal-eskaintza biderkatzeko pentsatua izan arren.

1987an, telebista pribatuak jaio ziren, eta, Europako beste inon gertatuko ez zen arren, telebistagintza publikoaren lehen kanala —TF 1— pribatizatu zuten.

Jabetzan eta kudeaketan eragina izan zuen birrarauketaren ondorioz, Canal Plus —Havas taldekoa eta ordaintrukean ikus zitekeena— sortu zen lehenengo. Gero etorri ziren, bizitza laburra izan zuen La Cinq (Berlusconi eta Chargeurs Réunis-en eskutik) eta TV 6, gazteentzako musika eskainiz berezia.

### ***1.5. Digitalizazioak eragindako birrantolaketa***

90. eko hamarkadan aldaketa asko bizi izan zituen Estatu frantziarrek telebistagintzak. Horietatik garrantzitsuenen artean dago —lehen aipatu dugun HACA erakundearen oinorde gisa— CSA (Conseil Supérieur de l’Audiovisuel) sortu izana. Irrati-telebistaren panorama arautzeaz arduratzen den Ikus-entzunezko Kontseilu Gorenak (<http://www.csa.fr>) bi kanal publikoentzako zuzendari bakarra izendatu zuen 1989an, eta horrek France Télévision entearen sorrera ekarri zuen 1992an. Jaiotza horren ondoren birbataiatu zituzten France 2 eta France 3 izenez lehen A2 eta FR3 zirenak.

1992an, La Cinq desagertu zen, eta berak okupatzen zuen frekuentzian Arte eta La Cinqième izenekoak kokatu ziren, eguneko emisioa erdibanatuz.

TV 6 berak ere izen- eta jabetza-aldaketak eduki zituen 90. hamarkadan: Métropole 6 (M 6) izena hartu zuen, eta, orduz geroztik, Compagnie Luxembourgeoise de Télévision (CLT) da bere jabea.

1996an, plataforma digitalak sortu ziren: Canal Satellite Numérique (Canal Plus), TPS (TF 1, M 6, France Télévisions, France Télécom eta Lyonnaise Communications) eta ABSat (AB Productions-en filiala). Azken horrek ez du gaur egun eskaintza propiorik, eta beste bi plataformen multzoan kokatzen ditu bere kanalak.

2001ean, telebistagintza digitalaren ezarpenerako azterketak, egutegia eta arautegia egiten hasi zen CSA. 2010-2015 bitartean telebistagintza analogikoa desagertuko dela espero da.

## **2. ESTATU FRANTZIARREKO TELEBISTAGINTZAREN GAUR EGUNGO EGOERA<sup>2</sup>**

Mende berriaren lehen hamarkadak telebistagintza osoaren digitalizazioa ekarri du. Aro analogikotik etorritako kanalen metamorfosiari bete-betean teknologia digitalean jaiotakoak gehitu behar zaizkio, eta horrek telebistagintzaren panorama berri baten aurrean kokatu ditu Estatu frantziarra eta espainiarra bezala gainontzeko europar batasunkideak.

Uhinak erabiltzen dituen transmisio-sistema da zabalduena gaur egungo telebistagintzan, baina ezin albo batera utzi kablez edota satelitez beren seinaleak zabaltzen dituztenak. Horiez guztiez arituko gara ondoko lerroetan, telebista-kanal desberdinen emisio-eremua aipatuz eta, gainera, irekian edo ordainpekoak diren azalduz.

Hasteko, digitalizaziorako migrazioa gertatu izan den bitartean egon diren sistema bien deskribapena egingo dugu. Bikoiztasun teknologiko hori 2005ean amaitu eta gero, telebistagintza digitalaren aro berria irekiko da (Lagardere Active Publicité, 2002).

Lurreko telebista analogikoak bi eredu izan ditu martxan, aldi berean: irekian emititzen duten kanalak (France Télévisions-eko hirurak, TF 1 eta M 6, Estatu osoan, gehi emisio-eremu txikiagoa dutenak) eta ordainpekoak (Canal +F).

---

2. Oinarrian, CMTek (2002) argitaraturiko “El mercado de la televisión en la Unión Europea” da erabili dugun testua. Sarean eskuragarri dago ([www.cmt.es](http://www.cmt.es)).

Uhinez eta irekian, aitzindaritzan, France Télévisions izeneko *holding* publikoak<sup>3</sup> France 2, France 3 eta France 5 (lehenengo La Cinquième) ditu bere baitan, eta bakoitzak definitua du nolabait bere zereginen zerrenda. Hala nola, France 2k lurralde kontinentalerako programazioa ekoiztea eta emititzea ditu betebeharrekoen artean. Beti ere, xede-talde zabalera begira pentsatua eta barneko zein nazioarteko informazioari lehenetasuna emango dion orotariko programazioa eskainiz. France 3k ere, orotariko programazioaren ereduari jarraiki, informazio lokala, estatukoa zein nazioartekoa azpimarratuko duen kanal gisa definitua izan da. Azkenik, hezkuntzan zentratutako programazioa eskaintzen du France 5ek, lurralde kontinentalaren erreferentzia gisa hartuta. Gainera, frekuentzia berean aritzen den Arte izenekoarekin batera, eguna bi zatitan du antolatua: lehenean, (03:00-19:00) France 5 aritzen da, eta gainontzeko orduetan Arteren emanaldia da aireratzen dena.

Estatu frantziarreko telebistagintza publikoa, neurri handi batean —bi hereneko proportzioan— telebista-hargailuak dituzten guztien zergen bidez finantzatzen da. Kanon horri publizitatearen bidezkoa gehitzen zaio, aurrekontuen beste herena betez.

1975ean kanal publiko gisa sortua, TF 1 pribatizatu zuten 1987an, gaur egungo nortasuna eskuratuz. Bouygues akziodun nagusi duen TF 1 kanala Estatu frantziarreko audientzia- eta publizitate-maila altueneko kanala da. CSArekin sinaturiko konbenioaren arabera, film luze frantziarrak eta europarrak lehenetsiko dira TF 1en emanaldietan.

Pasa den mendeko laurogeigarren hamarkadan jaiotako kanal pribatuen artean dago M 6 izeneko (lehen TV 6 zena). RTL eta Suez Lyonnaise des Eaux ditu akziodun nagusi, eta, orotariko programazioa zabaltzen duen arren, gazteentzako programak eskaintzen espezializatuta dago. Horrez gain, musikari buruzko saio-kopuru minimo bat emititu beharra du. Lurralde-deskonexioak egiten ditu.

Uhinez emititzen duen ordainpeko telebista bakarra dago Estatu frantziarrean, Canal + F delakoa<sup>4</sup>. Estatu osorako aireratzen duen kanal horren jabeak Vivendi-Universal-ek baimena eskuratu zuenean, publizitateari dagozkion hainbat baldintza eta film europarren eta frantziarren presentzia garrantzitsua berrmatuko zituztela sinatu zuten. Gaur egun, filmak eta kirolak dira bere emisio-dietaren osagarririk preziatuenak. Canal +Fko harpidedunen kopuruak behera egin du azken urteotan (4 milioi inguru 1996an eta 3,4 inguru 2000n), enpresa berekoa den Canal Satellite Numériquen onerako. Telebista-plataformaren bezero-kopuruak gora egin du, noski, eta bere eskaintzaren barruan dauka Canal + F izeneko, beste askoren artean.

---

3. France Télévisions ez da Estatu frantziarreko telebista-enpresa publiko bakarra, izan ere hori dira, besteak beste, kolonietarako RFO (Réseau France Outre-Mer), La chaîne Parlementaire eta Arte-France (Arte kanal franko-alemanaren atzetik dagoen enpresa publikoa).

4. Egunean 4 eta 6 ordu bitartean irekian emititzen dute Canal +Fk eta Canal +Ek.

## Estatu Frantziar osorako telebistagintza

<b>Lurreko telebista analogikoa; irekian</b>				
<b>Katea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Kuota (%2003 Estatu osorakoan)</b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
France Télévisions	France 2	20,5	Publikoa	1975
	France 3	16,1	Publikoa	1983
	France 5	6,4	Publikoa	1994
TF 1	TF 1	31,5	Pribatua	(1975) 1987
M 6	M 6	12,6	Pribatua	1987
Arte	Arte	3,4	Publikoa	1991

<b>Lurreko telebista analogikoa; ordainpekoa</b>				
<b>Katea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Harpidedunak 2004 (000)<sup>5</sup></b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
Canal + France	Canal + F	4.867	Pribatua	1984

Iturria: CMT, 2002 eta Dixit 2003

Lurreko telebistagintza digitalaren garairako, Estatu frantziarrean hainbat egokitze tekniko eta lege aldetiko burutu behar izan dira. Esaterako, Estatu frantziar osora emititzeko hogeitik gora baimen eman zituen CSAk 2002an zerbitzu digitalerako. Horietatik erdia (Dixit, 2003) doanekoa zen (TF 1, M 6, Direct 8, I-MCM, M 6 Music, NRJ TV, NT 1, TMC eta France Télévisions-eko 6 gehi Arte eta La chaîne Parlementaire), eta gainontzekoa ordainpekoa (Canal +, AB 1, Canal J, Eurosport, TF 6, TPS Star, Paris Première, besteak beste).

Gainera, TDTaren mapa, jabetzari dagokionez, 8 kanal publikoz eta 22 pribatuz osatuko da.

Orain artekoek beren emisio-eremua Estatu osoa badute ere, CSAk, telebistagintza lokala garatzeko, 110 eremu geopolitikoetarako 3na frekuentzia ditu gordeak (Le Flohic, 2003: 493 eta 519-524).

5. Canal +Fk berak argitaraturiko datuak dira.

Lurreko telebista digitala: irekian (16)			Lurreko telebista digitala: ordainpekoa (15)		
Katea	Kanala	Jabetza	Katea	Kanala	Jabetza
France Télévisions	France 2	Publikoa	Canal +F	Canal +F	Pribatua
	France 3	Publikoa	AB	AB 1	Pribatua
Arte	France 5	Publikoa	Lagardère	Canal J	Pribatua
	Arte	Publikoa	MultiThématiques	CinéCinéma	Pribatua
La chaîne Parlementaire/ Public Sénat	La chaîne Parlementaire/ Public Sénat	Publikoa	Pathé	Cuisine TV / Comédie!	Pribatua
Zehazteke		Publikoa	TF 1	Eurosport France	Pribatua
Zehazteke		Publikoa	Canal +F	i-Télévision	Pribatua
Zehazteke		Publikoa	TF 1	LCI	Pribatua
TF 1	TF 1	Pribatua	Lagardère	Match TV	Pribatua
M 6	M 6	Pribatua	Suez	Paris Première	Pribatua
Direct 8	Direct 8	Pribatua	MultiThématiques	Planète	Pribatua
i-MCM	i-MCM	Pribatua	Canal +F	Sport +	Pribatua
M6 Music	M6 Music	Pribatua	TF 1 eta M 6	TF6	Pribatua
NRJ TV	NRJ TV	Pribatua	TPS	TPS Star	Pribatua
NT1	NT1	Pribatua	Zehazteke	Zehazteke	Pribatua
TMC	TMC	Pribatua			



Kontuan hartzeko moduko hedapena izan du kableak Estatu frantziarrean. Hala nola, gaur egun etxebizitzaren %37,8k sarbidea du, eta horietatik %14,7 harpideduna da (IP, 2003).

**Kable bidezko telebista-harpidedunak diren etxebizitzaren kopurua (milakotan);  
Estatu frantziarra; 1991-2004<sup>6</sup>**

1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997
776	1.040	1.286	1.607	1.857	2.136	2.347

1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004 <sup>7</sup>
2.580	2.819	3.020	3.239	3.430	3.523	3.545

Iturria: Le Flohic, 2003, Aform, 2004 eta France Télécom Câble, 2004.

Kable bidezko telebistagintza ustiatzen duten lau enpresa nagusi daude Estatu frantziarrean<sup>8</sup>: Noos, France Télécom Câble, Numéricâble eta UPC France, eta, beren artean, harpidedunen %90 inguru bereganatzen dute (CMT, 2002). 2001ean kable bidezko telebista zuten etxebizitzetatik 500 mila, gainera, telebista digitala jasotzen zuten.

<b>Kable bidezko telebista (2004, ekaina)</b>				
<b>Taldea</b>	<b>Sarbidetza</b>		<b>Harpidetza</b>	
	<b>(000)</b>	<b>%</b>	<b>(000)</b>	<b>%</b>
Noos	2.967	11,9	1.085	4,4
France Télécom Câble	1.520	6,1	836	3,4
Numéricâble	2.314	9,3	795	3,2
UPC France	1.393	5,6	468	1,9
Bestelakoak	685	2,7	361	1,4
Guztira	8.879	35,7	3.545	14,3

Iturria: CSA, 2004 eta Aform, 2004

Esanikoaz gain, ADSL teknologia erabiliz, badira Estatu frantziarrean telefono-kablea erabiliz telebista-seinalea igortzen duten enpresak. Horien artean, eta teknologia hori etorkizun laburrean garatuko eta hedatuko den esperantzan, Free, France Télécom, TPS eta CanalSatellite emititzen hasiak dira.

6. 2003-2007 bosturtekoan kablearen zein satelitearen irispin-indizea zenbatekoa izango zen aztertzen zuen ikekerta prediktiboa egin zuen PriceWaterhouseCoopers enpresak. Ikus, atal honen gehigarriak.

7. France Télécom Câble-k plazaraturiko datuak.

<<http://www.francetelecomcable.fr/entreprise/entreprise.php4#chiffrescles>>

8. Enpresa handi hauen arteko akzio gurutzatuak egon dira, eta merkatuaz jabetzeko mugimenduak ez dira falta izan. Besteak beste, France Télécom eta Numéricâble batzeko eginikoak.

Satelite bidezko telebistagintza 1996an abiatu zen, eta orduan hiru plataforma bazeuden ere, gaur egun ABSat delakoa beste bien eskaintza-multzoetan kokatzea erabaki zuen. Orduz geroztik, TPS eta Canal Satellite Numérique delakoak dira mantentzen direnak. IPren arabera, Estatu frantziarreko etxebizitzan %18,5ek satelitea dauka, kolektiboa edo banakakoa.

<b>Satelite bidezko telebista</b>				
<b>Katea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Harpidedunak (000) (2003)</b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
TPS	Paketea	1.172	Pribatua	1996
Canal Satellite Numérique	Paketea	2.751	Pribatua	1996

Iturria: CSA, 2004 eta Canal Satellite Numérique, 2004

Telebistagintzari dagokion deszentralizazio-maila oso txikia du Estatu frantziarrak, eta oso apala gertutasuna lantzen duen eskaintza. Gutxi horien artean daude Paristik emititzen duten kanalen lurraldekako deskoneksioak eta, bestetik, erregio, eskualde edo herri baterako propio sorturiko kanalak.

Estatu osorako kanalen deszentralizazio-modu xumeen artean daude France 3 (erregioetarako 24 emanaldi ditu eta 19 maila lokalekoak) eta M 6 (10 albistegi lokal). France 3k Ipar Euskal Herrirako saio berezi batzuk aireratsen ditu; esaterako —1992tik hona “France 3 Euskal-Herri Pays Basque” izena du—, sei minutuko albistegia eskaintzen du, 19:45etan (Urteaga, 2004).

Aipatua baino deszentralizazio-maila handiagoa erakusten duten telebisten panorama oso apala da. CMTk (2003) dioenez, hoguei inguru besterik ez dira Estatu osora beren seinalea zabaltzen ez duten kanalak. Horien artean dago telebistagintza supraerregionala deitu izan dena: Paris Première (lurretik Parisera, eta kablez eta satelitez inguruko erregioetara eta nazioartera, hurrenez hurren).

Emisio-eremu horietatik beherakoen artean daude kanal infraerregionalak: “télévision de pays” delako eskualderakoak (Télé Lyon Métropole eta Télé Toulouse) eta “télévision de ville” izenekoak (Télé Savoies-8 Mont-Blanc eta Aqui TV, adibidez). Azken horien artean kokatzen dira departamentu bat ala birako emititzen dutenak, DOM-TOMetarakoak, kable bidezkoak eta aldi baterako kanalak; Baigorritik aritzen den Kanaldude, esaterako.

Internet bidezko telebistari dagokionez —*webcasting* deiturikoa, alegia—, kasu interesgarri asko daude Estatu frantziarrean. Edozelan ere, gehienak uhinez aritzen diren telebista konbentzionalen weberako bertsioak dira, baina badira beste batzuk propio eta modu eskusiboan internet dutenak emisio-modu bakarra. Dixit-ek (2003) kaleratsen duen txostenaren arabera, 30etik gora dira internet transmisio-euskarri gisa duten telebistak; gero ikusiko dugun modura, horietatik bi Ipar Euskal Herrikoak.

### **3. ESTATU ESPAINIARREKO TELEBISTAGINTZAREN IBILBIDEA**

#### **3.1. 1956: TVEren sorrera**

Estatu-kolpeak eta ondoko gerrak erregimen frankistaren nazioarteko isolamendua ekarri zuten, baita maila teknologikoan ere. Hori dela eta, ordurako telebista Erresuma Batuan eta AEBn ezaguna bazen ere eta baita Estatu frantziarrear ere, berrogeita hamarreko hamarkada arte ez ziren abian jarri Televisión Española deiturikoaren emanaldiak.

Gerrak zapuzturiko ekonomiak ez zuen erraztu telebista-hargailuen sozializazioa, eta oso gutxi ziren telebista-kanal bakar hura ikusteko moduan ziren sutondoak.

Diktadurapeko sistema politiko hartan, telebistagintzaren hedapen teknologikoa eta politikoa oso antzerakoak izan ziren: monopolikoa, ideologikoki oso lerratua eta zentralista —erretransmisio-sareari eta baita ere edukiei dagokionez—.

Aginte-postua Madrilen kokatua zuen TVEk Bartzelonako (1959) eta Kanarietako (1964) emisio- eta produkzio-zentruak ireki zituen, eguneroko beharrei erantzun ahal izateko (Palacio, 2001).

#### **3.2. 60ko hamarkadak medioaren zabalpena ekarri zuen**

Medioari aitortzen zitzaion eragin sozialaz baliatu zen erregimen politikoa, eta kate motzean mantendu zuen telebistagintza. Diru publiko eta publizitate bidezko finantzazio mistoa eta ikus-entzuleentzako doaneko telebistagintza-eredua erabili zen. Hargailuen kopuruak gora egin zuen, eta hamarkadaren amaieran kolorezko emisioak jarri ziren martxan.

1965ean, jendeak UHF deitzen zuen TVE 2 jaio zen, eta, orduz geroztik, Estatu osorako telebistagintzaren bigarren oinarria izan da.

1966an, Fragaren Prentsa Legea kaleratu zen.

Lehen aipatu dugun ikuspegi zentralistari uko egin gabe, eta produkzio-arrazoiak zirela medio, delegazio territorialak abiatu zituen TVEk 1969an, eta, 1974tik aurrera, hainbat delegaziotatik eguneroko albistegi erregionalak aireratzen hasi ziren, tartean Bilbokoa (gaur egun 17 delegazio daude, eta askoz ere korrespondentsalia gehiago).

#### **3.3. 70eko hamarkadaren geldialdia**

Frankismoaren barneko pitzadurak eta amaitzeaz sumatzen zen sistemaren defentsa-erreakzioak medioaren kontrol politikoa areagotzea ekarri zuen.

Francoren heriotzak eta 1977ko hauteskondeek transizio politikoa ekarri zuten, non monarkia eta parlamentua eta Estatuaren batasuna eta deszentralizazio autonomikoa konbinatzeko konstituzioa kaleratu zen.

Estatu espainiarreko hainbat hiriburutan konrresponentsaliak antolatu ez ezik, TVEk emisio deszentralizatuak jarri zituen martxan, lanegunero ordu erdiko albistegi baten bidez.

### ***3.4. 82an, Estatuaren monopolioa hautsi: ETB jaio zen***

1980an, Irrati-telebistaren Estatutua kaleratu zuten espainiar gorteek, eta, beste batzuen artean, telebistagintza Estatuaren esku dagoen zerbitzu publiko gisa definitu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoan, autonomia-estatutuak ematen zuen aukera baliatuz, ETB sortu zen, eta beste hainbat kanal autonomiko, segidan. EA Eren ondotik, komunitate autonomo asko —2004an 8, baina Asturiasekoa eta Extremadurakoa bidean zirelarik— kanal propioa aireratzen hasi ziren, horietariko batzuk bi kanal erabiliz (Bustamante eta Zallo, 1988).

Telebista autonomiko horien arteko elkarlana eta ikus-entzunezko ekoizpenen merkatuan lehiatu ahal izateko, FORTA erakundea sortu zuten, 1989an.

### ***3.5. 90ekoan, telebistagintza pribatuaren etorrera***

Telebistaren panorama biziagotu egin zen hamarkada horretan. Batetik, Europan gertatzen ari zen birrarauketa-boladari eta talde mediatikoen presioari erantzunez, telebista-kanal pribatuak sortu ziren. Eta, bestetik, aurrerapen teknologikoetan oinarrituz, transmisio-sistemak ugaritu ziren.

Tele 5ek eta Antena 3k irekian emitituz eta ordu asko eta garrantzitsuenetan deskodifikatzailearen beharra zuen Canal +Ek emititzeari ekin zioten, 1990an.

Eduki bertsuko eskaintza urgaritzeak audientzia-lehia ekarri zuen eta, horren gainera, edukien espektakularizazioa eta epe laburreko programazio-politiken ikuspegia nagusitu zen, baita kanal publikoetan ere (Bustamante, 2002).

1997rako, lurreko uhin analogikoak alboan zituen satellite bidezkoak eta kablea. Urte horietan sortu ziren satellitea zerabilten bi plataforma (Canal Satélite Digital eta Via Digital), 2003an Digital + izenpean batu zirenak.

Esan bezala, kable bidezko telebistagintza telekomunikazio-enpresen eskutik garatzen eta Estatu espainiar penintsularrean hedatzen hasi zen.

### 3.6. Digitalizazioaren abiada

XXI. mendeak digitalizazioaren abiaburua markatu zuen, eta 2012rako telebistagintza analogikoa desagertuta egongo da.

Lurreko telebista digitalak telekomunikazioen esparru orokorraren birrantolaketan ekarriko du, eta baita aldaketa handiak ere eskaintzan zein kontsumoan.

## 4. **ESTATU ESPAINIARREKO TELEBISTAGINTZAREN GAUR EGUNGO EGOERA**<sup>9</sup>

Lurreko uhin bidezkoa izan da telebista-sistema erabiliena, eta kopuruz atzetik doaz satelitea eta kablea oinarri modura dutenak. Telebistagintza analogikotik digitalerako bidean, 2012a mugarri-data garrantzitsua da Estatu espainiarreko panoraman. Izan ere, urte horretatik aurrera seinale analogikoak bidea utziko baitio digitalari, behin betiko. Migrazio teknologikoa hamarkada bat lehenago hasi zen, eta, urte batzutan, kanalek seinale-mota biak erabili izan dituzte, etxebizitzetako hargailuen kopuruak gora egiteko astia izan zezan. Beraz, *switch off*-erako data mugiezina zen arren, digitalizazioaren eragina sentitzen hasia zen urte batzuk lehenagotik ere.

Lerro batzuk aurrerago, XXI. hasiera-urte hauetako panorama zirriborratuko dugu, Estatu espainiarrean lanean ari diren lurrazaleko telebisten kasutik hasita.

Seinale analogikoaz baliatzen zirenen artean, Estatu frantziarrean gertatu den bezala, bi motatako kanalak izan dira nagusi: batetik, orotariko programazioa, irekian eta, beraz, doan jaso daitezkeen telebistak (publikoak bi, Televisión Española-arenak, eta pribatuak beste bi: Antena 3 eta Tele 5) eta, bestetik, programazioa ikusi ahal izateko harpidetza eskatzen duena (Canal +E).

Ondoko taulan ikus daitekeenez, sorrera-datan hamar urteko aldea egon arren Estatu osorako bi kanal publikoen artean, aitortu beharra dago TVE 2en hedapena oso motela izan zela, eta 80. hamarkada arte ez zuela lortu gaur egun unibertsala den emisio-eremua.

RTVEren emisioak Madrildik sortuak dira, eta programa gutxi batzuen deszentralizazioa (albistegiak, kirol-saioak edota magazin kulturalak) izan ezik, eskaintza ia osoa Estatu osorako programazio-taularen bidez gauzatu izan da.

---

9. Estatu espainiarreko telebistagintzaren erreposan eta gaur egungo egoeraren azterketan oso baliagarriak izan zaizkigu SGAren urtekaria <[www.artenetsgae.com/anuario/home.html](http://www.artenetsgae.com/anuario/home.html)> eta IPren (2003) International Key Facts delako liburua.

Kanal pribatuei dagokienez, hiru dira Penintsula eta Balear zein Kanariar irletarako emisioak dituztenak: Antena 3, Tele 5 eta emisio kodifikatuak eta irekian direnak konbinatuz aritzen den Canal +E.

Lehen biak, TVE lekin batera, ikus-entzule gehien duten kanalak dira, bereziki hainbat erkidego autonomoetan.

Antena 3en kasuan, Telefónica, Planeta-taldea, SCH eta RTL dira bere akziodun nagusienak. Programazio konbentzionala aireratzen du, eta, albistegiak eskaintzeko deskonexio xume batzuk salbu, gainontzeko programazioa homogeneoa du Estatu osorako.

Tele 5en akziodunen artean, buruan dira Mediaset, Dresdner Bank eta Vo-cento. Orotariko programazioa du eta, albistegi batzuk salbu, programazio zentralizatua.

Canal +Ek, Estatu frantziarrek bere ahizparen antzera, emisio-ordu gehienak kodifikatuak ditu, hala ere, egunean 5 bat ordu emititzen du irekian. Kirolak eta fikzioak berebiziko garrantzia dute bere programazioan.

#### Estatu osorako telebistagintza

<b>Lurreko telebistagintza analogikoa; emisio irekian</b>				
<b>Katea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Kuota (%-2003-Estatu osorakoan)</b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
RTVE	TVE 1	23,4	Publikoa	1956
	TVE 2	7,2	Publikoa	1965
Antena 3	Antena 3	19,5	Pribatua	1990
Tele 5	Tele 5	21,4	Pribatua	1990

<b>Lurreko telebista analogikoa; ordainpekoa</b>				
<b>Katea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Etxebizitza harpidedunak (000) (2004)<sup>10</sup></b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
Canal + España	Canal +	539	Pribatua	1990

Lehen ere esan dugun modura, 2012a markatu zuten telebistagintza analogikoa desagertzeko data gisa. Europako beste Estatu askotan bezala, urte horretara heldu artekoak transizio-garaiak dira: erabat finkaturiko legedia eta kudeaketa-arautegia, aldaketa teknologikoa, edukiak ekoitziko dituen industriaren finkatzea eta kontsumo-modu berriak direla medio.

10. 1997an Canal Satélite Digital-ek emititzeari ekion zionean, Canal +Eren harpidedunen kopurua behera egiten hasi zen. Hemen eskaintzen diren datuak Sogecable-k berak emanikoak dira, 2004ko martxokoak.

Legeak markatzen zuenaren arabera, kanal pribatu eta publikoek, Estatu osorakoek zein autonomikoek, analogikoaz gain, digitalean ere emititu behar zuten 2002an, digitalizazioaren bidean. Baldintza hori bete egin zuten, seinale digitala jasotzeko argailu oso-oso gutxi zeuden arren merkatuan. Gainera, digitalean huts-hutsean arituko ziren kanalen artean, Quiero TV delakoak, arrazoi ekonomikoak tarteko, porrot egin eta emisio-baimena itzuli behar izan zuen. Beraz, esandakoaren hildotik, telebista digitalak ekarritako egonezinak luze joko du 2012a bitartean.

Oso aldakorra suertatu den digitalizaziorako migrazioak “Plan Técnico Nacional de la Televisión Digital Terrestre” (PTNTDT) delakoa zuen gidari, erritmoak eta baldintzak markatzeko. Legeak dioenez, Estatu osorako 21 kanal<sup>11</sup> arituko dira eta horietatik 7 irekian (lehendik zetozen RTVEren biak, Tele 5 eta Antena 3 zuzenean doaz multzo horretan. Canal +Ek ere automatikoki du kanal horretako bat). Gainontzeko 14 kanalak ordainpekoak dira.

Esan bezala, Estatu osorako emisio-eremu honetan, lehen analogikoan aritu izan direnei —bost dira— dagoeneko esleituak dauden Veo TV eta Net TV izenekoak gehitu behar zaizkie, legeak markatzen duenaren arabera. Hasierako urteetan, digitalizazioaren oztopo handienetarikoa argailu-kopuru baxua izan da.

<b>Lurreko telebistagintza digitala (21 kanal 2012rako)</b>				
<b>Katea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Irekian/ Ordainpekoak</b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
RTVE	TVE 1	Irekian	Publikoa	2002
	TVE 2	Irekian	Publikoa	2002
Antena 3	Antena 3	Irekian	Pribatua	2002
Tele 5	Tele 5	Irekian	Pribatua	2002
Canal +E	Canal +E	Mistoa	Pribatua	2002
Net TV	Net TV	Irekian	Pribatua	2002; probatan
Veo TV	Veo TV	Irekian	Pribatua	2002; probatan
Quiero TV	Quiero TV	Ordainpekoak	Pribatua	Desagertua 2002an
14 Zehazteke	Zehazteke	Ordainpekoak		

Satelite bidez irekian jaso daitezkeen telebista-seinaleak asko dira, hala ere, komertzializazio-sistema modura, plataformak sortu ziren 2003an, eta bere horretan mantentzen dira gaur egun ere. Estatu espainiarrean, Canal Satélite Digital eta Via Digital batu zirenetik, bakarra da kanal-eskaintza zabala merkaturatzen duen plataforma, Digital + izenekoak.

11. Digitalizazioaren garaian “kanal” hitza erabiltzen dutenean, frekuentzia adierazi nahi izaten dute, eta, horren arabera, bertan lauzpabost “programa” kokatuko lirateke. Guk, ordea, nahiago dugu “frekuentzia digitala” deitzea —esate baterako, TVEri dagokionari—, eta hark duen eskaintza bakoitza izendatzeko, betiko “kanal” hitza erabiltzea.

<b>Katea</b>	<b>Harpidedunak (2004<sup>12</sup>)</b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
Digital +	1,7 M	Pribatua	2003
Canal Satélite Digital	1,14 M; 2003an	Pribatua	1997-2003; desagertua
Via Digital	734.000, 2003an	Pribatua	1997-2003; desagertua

Lehen aipatu ditugun lurreko telebista analogiko batzuek satelitea ere erabiltzen dute beren emanaldiak aireratzeko. Satelite bidezko emisio horiek lurreko berberak izaten dira kasu batzuetan, eta beste kanal batzuek, aldiz, eduki bereziak prestatzen dituzte sateliterako.

Lurreko uhin digitalaz eta sateliteaz gain, kablea da telebista igortzeko erabiltzen den hirugarren sistema nagusiena. 90. hamarkadaren azkenetan sortu ziren Estatu espainiarrean lehen emakidadunak, eta kablea sartzeari ekin zioten. Hain zuzen ere, jakina den bezala, kable-sarbidea da telekomunikazio-enpresek aurkitzen duten trazarik handiena eta garestiena. Hortik aurrerako harpidetza-kanpainak nahiko arin joaten dira, eta transmisio-sistema horrek irispemaila altu xamarra du. Gaur egun, Estatu osoan dauden 43 kable-demarkazioetan lanean ari diren enpresen kontzentrazioerako joera oso markatua da; beraz, kablearen merkaturua konpainia handi batzuen inguruan antolatuz ari da, gero eta gehiago.

<b>Kable bidezko telebistagintza (2003-2004)</b>					
<b>Taldea</b>	<b>Emakidaduna</b>	<b>Sarbidetza</b>		<b>Harpidetza</b>	
		<b>(000)</b>	<b>%</b>	<b>(000)</b>	<b>%</b>
<b>ONO</b>	ONO	2.000	14	339.378	2,4
<b>AUNA</b>	Retevisión, Supercable Andalucía, Menta, Zaragoza, Tenaria...	2.500	17,5	296.132	2,1
<b>Independenteak</b> (lehengo AOCTik gelditzen direnak)	Euskaltel, R, Telecable...	300	2,1	358.165	2,5
<b>Bestelakoak</b>				3.011	0,01
Guztira		4.800	33,6	996.686	7%

Iturria: operadoreek emaniko datuak, CMT, 2004 eta Mikel Urretabizkaia, 2004

12. 2004ko datuak, Sogecable-k berak eskainitakoak dira. Bestalde, 2003-2007 bosturtekoan kablearen zein satelitearen irispem- indizea zenbatekoa izango zen aztertzen zuen ikerkerta prediktiboa egin zuen PriceWaterhouseCoopers enpresak. Ikus, atal honen gehigarriak.



Emilio Fernandez-ek (2002) dio hiru direla talde handiak: ONO, AUNA (Re-television, Supercable Andalucía, Kataluniako Menta, Zaragoza...) eta Independente deiturikoak, lehengo AOCTik gelditzen direnak: Euskaltel, R, Telecable... Hiru horietatik kanpo gelditzen direnak aspaldiko “kableroak” dira.

### Telebistagintza autonomikoa

<b>Lurreko telebistagintza analogikoa; emisioa irekian</b>				
<b>Komunitatea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Kuota (2003)<sup>13</sup></b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
Euskal Autonomia Erkidegoa	ETB 1	18	Publikoa	1982
	ETB 2	6,2	Publikoa	1986
Katalunia	TV3	21,1	Publikoa	1984
	K3/33	6,8	Publikoa	1989
Galizia	TVG	18	Publikoa	1985
Andaluzia	Canal Sur	17,9	Publikoa	1989
	Canal 2 Andalucía	5,2	Publikoa	1998
Madril	Telemadrid	17,1	Publikoa	1989
	LaOtra	-	Publikoa	2001
Valentzia	Canal 9	18,2	Publikoa	1989
	Punt2	2	Publikoa	1990
Kanariarrak	TVC	12,7	Publikoa	2000
Gaztela-La Mancha	CMT	11,1	Publikoa	2001
Asturias	Ente Público de Comunicación Asturiana	-	Publikoa	2005
Extremadura	Corporación Extremeña de Medios Audiovisuales	-	Publikoa	2005
Aragoi	Corporación de la Radio y la Televisión Aragonesa	-	Publikoa	2005
Illes Balears	IB3	-	Publikoa	2005

Telebista autonomiko horietariko batzuek satellite bidez ere aireratzten dituzte beren emanaldiak; adibidez, Kataluniako CCRTVren TVC Sat izenekoa eta EITBren ETB Sat eta Canal Vasco direlakoak.

TDTren iraultzaren ondorioz, autonomien eremuan arituko ziren kanal digital pribatuak ere egon zitezkeen, legeak aipatzen zuenez. Emisio-eremu horietarako gorde ziren frekuentzien kopurua laukoa zen, autonomikoak eta lokalak barne.

13. Kanalaren audientzia-kuota definitzerakoan, bakoitzaren eremu autonomikoa hartu dugu kontuan, nahiz eta jakin kanal horiek inguruko lurraldeetara ere zabaltzen dutela beren eragina, eta, beraz, toki batzuetan kanal bat baino gehiago jaso daitekeela.

<b>Lurreko telebistagintza digitala</b>		
<b>Komunitatea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Jabetza</b>
Madril	Onda 6	Pribatua
Madril	Quiero	Pribatua (desagertua)
Errioxa	Radio Popular COPE	Pribatua
Errioxa	Rioja Televisión (Grupo Vocento)	Pribatua

Digitalizaziorako bidea abian jarri aurretik ere, asko izan dira maila lokalean aritu diren telebista-kanalak. Tipologia zabal eta zabar horren baitan daude aspaldi bideo-elkarte edo mugimendu sozialen ekimenez sortu zirenak, baina baita etekin-asmoa duten kanal txikiak eta kanal digitaletarako kontzesio-dataren bezperetan Estatu osorako antolaturiko kate erraldoietara lotuak ere. “Telebista lokala” kontzeptua lausotu da guztiz, eta, gaur egun, Localia, Vocento, UNE edo antzerako kateen besoetan aritzen diren emisorak errepikagailu-sareak dira nagusi, kopuruari dagokionez.

<b>Telebistagintza lokala; Estatu espainiar osorako ikuspegi orokorra</b>			
<b>Taldea</b>	<b>Katea</b>	<b>Kanal-kopurua</b>	<b>Jabetza</b>
Publimedia eta Atlas (T5 taldea)	UNE	66	Pribatua
PRETESA-PRISA	Localia TV	65	Pribatua
Hainbat enpresari	Canal 47/ La Tele Local	43	Pribatua
Hainbat enpresari	Local Media/ Cadena Local TV	38	Pribatua
Vocento	Vocento	30	Pribatua
UNE-Vocento (erlazionatuta)	Televisión de Castilla y León	18	Pribatua
Hainbat enpresari	Canal 4 Castilla y León	12	Pribatua
COPE eta apezpikutzak	Popular TV-TMT	4	Pribatua
Hainbat enpresari	TV Canal 39 Madrid/Telesierra	4	Pribatua
Flaix Radio (Zeta- rekin erlazionatua)	Flaix TV	3	Pribatua

Guztira, katean 589 eta independenteak 275. (SGAEren urtekaritik aterata; ikus AIMCren txostena, 2002).

Telebistarako transmisio-sistemen ugaritzeak ez du momentuz mugarik eza-gutu, eta, aipatu ditugun uhinez, satelitez eta kablez seinaleak igortzen dituztenaz gain, beste bi sistema aipatuko ditugu, labur-laburrean.

Lehena, internet bidezko telebista da. *Webcasting* deiturikoaren garapena oso apala da oraindik, baina handiak dira dituen potentzialak, gehienbat banda zabalekoak ugaritzen diren neurrian.

Bestalde, eta amaitzeko, ADSL bidezko telebista aipatuko dugu. 2002an, Alacant-en frogak egiteari ekin zion Telefónicak, eta, bi urte beranduago, Madrilen eta Bartzelonan programazioak igortzen hasi zen. ADSLren bidez, eta telefonokable arrunta erabiliz, telebistaz gain, internet lasterra, eskaerapeko bideoa eta aipaturiko telebista eskaintzen ditu. Izen komertzial gisa *Imagenio* duen zerbitzu horrek Estatu espainiar osora 22 telebista kanal, 15 irrati eta eskaerapeko bideozerbitzu zabalduko ditu.

ADSLa satelitez ere erabilgarri izateko pausoak ematen hasiak dira, eta, dirudienez, denbora gutxian, bezeroek telefono-kablearen aukera berberak izango dituzte antena paraboliko batez, baita telebista ikusteko ere.

**Kable bidezko telebistagintzaren harpidetza (1998-2002) eta harpidetzaren proiektzioa (2003-2007); etxebizitzak milakotan (000) eta ehunekotan (%)**

<b>Kable bidezko telebistagintzara harpideturiko etxebizitzak milakotan (000)</b>										
	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Estatu frantziarra	2.589	2835	3.075	3.325	3.575	3.760	3.950	4.140	4.330	4.520
Estatu espainiarra	11	165	400	550	700	800	900	1.000	1.100	1.200
<b>Kable bidezko telebistagintzara harpideturiko etxebizitzak ehunekotan (%)</b>										
Estatu frantziarra	11,6	12,6	13,5	14,6	15,6	16,3	17,1	17,8	18,6	19,3
Estatu espainiarra	0,1	1,3	3,1	4,2	5,3	6	6,7	7,4	8,1	8,8

Iturria: Price WaterhouseCoopers (2003)

**Satelite bidezko telebistagintzaren harpidetza (1998-2002) eta harpidetzaren proiektzioa (2003-2007) ; etxebizitzak milakotan (000) eta ehunekotan(%)**

<b>Satelite bidezko telebistagintzara harpideturiko etxebizitzak milakotan (000)</b>										
	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Estatu frantziarra	1.723	2.189	2.646	3.075	3.325	3.540	3.750	3.960	4.170	4.380
Estatu espainiarra	940	1.263	1.747	1.850	2.000	2.200	2.400	2.600	2.800	3.000
<b>Satelite bidezko telebistagintzara harpideturiko etxebizitzak ehunekotan (%)</b>										
Estatu frantziarra	7,7	9,7	11,7	13,5	14,5	15,4	16,2	17,1	17,9	18,7
Estatu espainiarra	7,3	9,8	13,4	14,1	15,2	16,5	17,9	19,3	20,6	21,9

Iturria: Price WaterhouseCoopers (2003)

## **5. EUSKAL HERRIKO TELEBISTAGINTZAREN IBILBIDEA**

### **5.1. 1982: EITBren sorrera**

ETBk emititzeari ekin zion arte, Euskal herritarrek Madrilgo zein Parisko emanaldien hartzaile hutsak izan dira. Salbuespen txiki batzuk besterik ez dira France 3 Region-ek 1970an iparralderako deskoneksio laburrak emititzen hasia (Urteaga, 2004; Basterretxea, 1997; eta Agirre, 2004) edota TVEk Bilbon (1971) eta Iruñean (1981) dituen korresponzientzatik pantailaratzen diren programak. Izan ere, mugaren bi aldeetan antolatutako lan-talde horiek albistegi laburrak edota erreportajeak aurreratzen zituzten, emisio zentralak utzitako denbora-tarte laburrean.

1982ko Gabon Zaharrean, ETBk Iurretatik aurreratu zuen bere lehen emanaldia, informazio-tresna propioa eta euskara eta euskal kultura suspertzea helburu zuen kanalaren bidez (Ibañez, 1993; Andoingo Udala, 2004). Telebistagintza autonomikoa maila bereko irratia jaiotzarekin batera etorri zen, eta 1982-1983koak dira Euskadi Irratia (Donostiatik) eta Radio Euskadi (Bilbotik), geroxeago etorri ziren Radio Vitoria eta Euskadi Gaztea.

Euskararen presentzia nagusi zen, hainbat programa gaztelaniaz edota hizkuntza horretan azpidatuta emititzen baziren ere.

### **5.2. 1986, maiatzaren 31n ETB 2k emanaldiei ekin zion**

Jose Maria Gorordo ETBko zuzendari zelarik, ETB 2 inauguratu zen, gaztelania hutsez emitituko zuen kanalari atea irekiz. Urtebete beranduago, Miramongo Produkzio-Zentrua inauguratu zen.

1989an, Estatu espainiarrean martxan ziren telebista autonomikoen arteko elkarlana bultzatzeko asmoaz, FORTA izeneko erakundea sortu zen (Díez, 2003).

1990ean, Tele 5en, Antena 3ren eta Canal +Eren jaiotzarekin, audientzia helburu zuen telebistagintza sustraitu zen.

### **5.3. 1992 “Euskal Telebista. Informe”**

Telebistagintza eta instituzionalizazio autonomikoaren arteko uztartzea legitimatzea helburu zuen txostena eztabaidatu zen Legebiltzarrean. EITBren lehen hamarkadaren balantzea eta ETB1 eta ETB2ren arteko joko-erlazioak definitu ziren.

1996an, EITBren sorrera-legea birmoldatu zen; esaterako, zuzendaria eta administrazio-kontseiluaren aukeraketa-prozedurak aldatuz.

1996an, “Galeusca TV” jarri zen martxan Galizia, Katalunia eta EA Eren telebisten arteko kolaborazioaren ondorioz eta Ameriketara telebista-seinalea satelitez bidaltzeko helburuarekin. Lehen saiakera horien ondotik, kanal bakoitzak bere

seinale propioa sateliteratu du. ETBren kasuan, Europarako “ETB Sat” delakoa (Astratik eta Estatu espainiarrerako Digital +en bidez) eta Ameriketarako “Canal Vasco” (Hispasat-etik).

#### **5.4. 2000ko Plan Estrategikoa, digitalizazioaren atarian**

Digitalizazioaren erronka teknologikoari, politikoari, produktiboari eta komunikatiboari erantzuteko asmoz, bost urterako egitasmo orokorra definitu zuen EITBk.

Transmisio-euskarri guztietan egon beharra (uhin analogikoak eta digitalak, kablea, satelitea, internet...) eta horietan katearen nortasuna eta helburuak definitzea izan zen plan estrategikoaren zeregina.

2002an, EITBren egoitzen arteko lotura digitalizatzen hasi zen, eta Euskal Telebistaren egoitza nagusia Bilbora eramatea erabaki zen.

EITBren eta Jaurlaritzaren arteko programa-kontratua sinatu zen, ente publikoaren finantzazioa epe ertainera bermatuz programazio-helburu zehatz batzuen truke.

### **6. EUSKAL HERRIKO TELEBISTAGINTZAREN GAUR EGUNGO EGOERA**

Estatu espainiarraren ala frantziarraren telebista-sistemaren barruan egoteak zeharo aldatzen du Euskal Herri kontinentalaren eta penintsularraren panorama. Bai behintzat, gaur egun nagusi den estatu osorako emisio-eremuari dagokionez. Izan ere, kostaldean edota muga-mugan diren hirietan eta herrietan salbu, ezin dira beste estatuaren kanalak ikus-entzun.

Euskal Telebistaren seinalea Iparraldean jasotzeko akordioak (1998) eta Nafarroako gobernuarekin sinatutakoak (1996) erabat eta ehuneko ehunean egoera normaldu ez badute ere, ETBren emisio-eremua ia Euskal Herri osora zabaltzen dela esan daiteke.

Bestalde, herrialde bakoitzaren panorama ahalik eta modurik zabalenean eman nahiak zailtasunak ditu. Esaterako, Iparraldea bi departamentutan banatuta dagoenez —aspaldikoa da departamentu bakarra eta erakundetze propioaren eskaera—, zaila suertatzen da bertako populazioaren eta ikus-entzunezko azpiegitura eta telebista-audientzia eta kontsumoei buruzko informazio azalekoena eskuratzea.

Lehen ere aipatu dugun bezala, Estatu osorako emititzen duten kanalen emaldia oso zentralista izaten da, eta TVEk, Tele 5ek eta Antena 3k, Hegoaldean, eta France 3k, Iparraldean, programazio propioa aireratzeko deskoneksio labur batzuk besterik ez dituzte egiten.

## Euskal Autonomia Erkidegoan ikus daitezkeen telebista-kanalen merkatu-kuota

<b>Lurreko telebistagintza analogikoa</b>				
<b>Katea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Kuota (%-2003-EAE osorakoan)</b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
RTVE	TVE 1	20,2	Publikoa	1956
	TVE 2	7,1	Publikoa	1965
Antena 3	Antena 3	16,5	Pribatua	1990
Tele 5	Tele 5	24,2	Pribatua	1990
Canal + E	Canal + E	1,8	Pribatua	1990
Euskal Telebista	ETB 1	6,2	Publikoa	1982
	ETB 2	18	Publikoa	1986
Bestelakoak	-	6	Denetarik	-

Iturria: TNS, 2004.

Iparraldearen kasuan, telebistaren audientzia-kuota Estatu frantziar osoaren antzerakoa dela pentsa daiteke, hori ziurtatuko duten ikerketa-lanik ez dagoen arren. Edozelan ere, France 3k albigesti propioa emititzen duen orduetan (18:56-19:03 eta 19:57-20:06) handia da kanal honek eskuratzen duen merkatu-zatia, %61,2 lehen kasuan eta %38 bigarreanean. Gainontzeko kanalen kuotak ho-nakoak dira: TF1 (%28,3), France 2 (%21,8), M6 (%8,6), Canal + F (%4,9), Arte/France5 (%0,7) eta gainontzekoak (%4,2): guzti horiek 19:57-20:06 ordu bitartean.

Bestalde, ondoko taulan ageri den bezala, ordainpeko telebistagintzak gure artean duen irispen-maila Estatu espainiar osorakoa baino baxuagoa da.

<b>Lurreko telebistagintza analogikoa; ordainpekoa</b>				
<b>Katea</b>	<b>Kanala</b>	<b>Harpidedunak (2004<sup>14</sup>)</b>	<b>Jabetza</b>	<b>Sorrera</b>
Canal + España	Canal +	38.512	Pribatua	1990
Canal + France	Canal +	5.500	Pribatua	1984

Iturria: Canal + España eta, Canal + France kasuan, hurbilketa.

Telebistagintza digitalak, Estatuari dagokionez ikusi dugun modura, berehalako eragina izango du, eta 2012a bitartean sistema biak arituko diren arren, garbi dago ezen analogikoan aritzen diren kanalek digitalerako jauzia egingo dutela. Horri kanal autonomiko berriak eta maila lokalekoak gehituko zaizkio, Estatu espainiarreko legeak aurreikusten duenez.

Dagoeneko, Nafarroako gobernuak bi kanal digital abiatzeko baimena eman die lehendik airez ari ziren Canal 4 eta Canal 6 direlakoei (ikus kanal lokal analogikoen zerrenda)

14. Sogecablek berak eskaintako datuak dira; komunitate autonomoetan: EAEn 30.110 eta NFKn 8.402 harpidedun.

Kableari dagokionez ere, Iparraldeko eta Hegoaldeko panoramak oso desberdinak dira. Erregio atlantikoa deiturikoan kokatzen dira Iparraldeko herrialdeak, eta bertako sarbidezea oso zabaldua dago populazio-gune handienetan (Baiona-Angelu-Biarritz), eta ez horrenbeste gainontzeko herri eta hiriburu txikiagoetan. Iparraldeko merkatuan oso handia da France Télécom Câble enpresaren garrantzia. Izan ere, BAB eskualdeko etxebizitzien %60 kableatuta dauka, eta bezeroen kopurua %20tik gorakoa izan da 2004an.

Hegoaldean, berriz, Estatuak eraikitako bi demarkazio daude, EAE eta Nafarroa. Lehenean Euskaltel, eta bestean Retena ari dira lanean. Azken hori, Auna delako enpresa espainiarraren barruan integratu zen 2004an.

<b>Kable bidezko telebistagintza Hego Euskal Herrian (2004)<sup>15</sup></b>					
		<b>Sarbideza</b>		<b>Harpideza</b>	
<b>Taldea</b>	<b>Emakidaduna</b>	<b>(000)</b>	<b>%</b>	<b>(000)</b>	<b>%</b>
Euskaltel	Euskaltel	410.869	44	162.828	17,4
Tenaria	Retena	102.400	11	22.754	2,4
Guztira		513.269	55	185.582	19,8

Iturria: Retena eta Euskaltel

Biarritz-Angelu-Baiona eskualdean kablearen irispena nahiko altua da, dau den 27.000 etxebizitzetatik 17.000k dute kable-zerbitzua, denak France Télécom-ekin.

Bestalde, satellite bidezko telebistagintzari dagokionez, Hego Euskal Herria bere eragin-eremuaren baitan hartzen duen Digital + izeneko plataforma aipatu beharra dago —gogoan izan Canal Satélite Digital eta Via Digital batzearen ondorioa dela—. Ipar Euskal Herrian, bestalde, Canal Satellite da zalantzarik gabe bezeria handiena duena, TPS delakoaren aurretik.

<b>Plataforma</b>	<b>Harpidedunak (2004<sup>16</sup>)</b>	<b>Jabetza</b>	<b>Noiztik</b>
Digital +	69.308	Pribatua	2003
TPS	9.005	Pribatua	1996
Canal Satellite	20.000	Pribatua	1996

Iturria: Digital + eta, TPS eta Canal Satelliteren kasuan, hurbilketa.

Azkenik, “telebista lokala”-ren etiketapean aritzen diren kanalak aipatuko ditugu. Bat-batean ikus daitekeenez, lokaltasunaren izenean oso panorama ugaria

15. Komunitate autonomo bakoitzaren ikuspegitik begiratuta, Euskaltelek kableatuta dauzka EAEko etxebizitzien %55,1, eta telebistara harpidetu direnen ehunekoa 21,9 da. Retenak, aldiz, Nafarroako etxebizitzien %54,8 kableatu ditu, eta horietatik %19,9 dira bezero.

16. Sogetel-k berak eskaintako datuak dira; komunitate autonomoetan: EAEn 51.585 eta NFKn 17.723



ageri zaigu, eta bertan kokatzen diren kanalek ez dute beren artean zerikusi handirik. Hala nola, lokalak deitzen ditugun kanal batzuk herri zein eskualdetan aritzen dira programazio propioa, gertuko eskainiz, zeinetan euskarak pisu handia duen, baina badira beste batzuk Madrildik igorritako programazio-taula osoak errepikatzen dituztenak eta hurbileko erreferentzialtasun informatibo, kultural eta linguistikoa kontuan hartzen ez dutenak. Hala ere, —digitalizazioak eta gertuko telebistagintzaren arautze legalaren zain—, panorama oparoa ageri zaigu, bai jabetzari, baita transmisio-sistemari zein emisio-eremuari dagokienez. Ondoren datorren taulan, gaur egun telebistagintza lokalaren erroldan koka daitezkeen kanalak ageri dira (Arana, Azpillaga eta Narbaiza, 2004).

<b>Telebistagintza “lokala” Euskal Herrian</b>				
<b>Izena</b>	<b>Kanala</b>	<b>Non</b>	<b>Nola</b>	<b>Katea</b>
<b>ARABA</b>				
Alava 7	Gasteiz	2002	Uhinez	Vocento
Alto Nervión TV	Laudio	2000	Uhinez	Localia
Canal 58	Laudio	1998	Uhinez	Ez
Canal Gasteiz	Gasteiz	1996	Uhinez; Kablez	Localia
Televitoria	Gasteiz	1995	Uhinez	Cadena Local

<b>BIZKAIA</b>				
Bilbovisión	Bilbo	2000	Uhinez; Kablez	Vocento
Canal Bizkaia	Bilbo	1997	Uhinez; Kablez	Localia
Canal Euskadi	Barakaldo	2004	Kablez	Localia
Durango Telebista	Durango	2002	Uhinez	Ez
Ermuko Telebista (desagertua)	Ermua	1995-2001	Kablez	Ez
Gran Bilbao TV	Bilbo	2000, 2003	Uhinez	Ez
Plentzia TB	Plentzia	1987	Uhinez	Ez
Proyección TV	Bilbo	2000	Internet	Ez
Tele 7	Barakaldo	1989	Uhinez; Kablez	Ez
Telebilbao	Bilbo	1992	Uhinez; Kablez	Cadena Local
Urdaibai Telebista	Gernika	2002	Uhinez	Ez
Uribe Kosta TB	Sopela	2000	Uhinez	Ez

<b>GIPUZKOA</b>				
GoiTB	Arrasate	2000	Uhinez; Kablez	Ez
Goierrri	Lazkao	2003	Uhinez; Kablez	Ez
Ikas TB	Donostia	1994	Uhinez	Ez
Izarraitz TB	Azpeitia	2004	Uhinez	Ez
Jaitxiki TB	Zarautz	1992-1995 2001	Uhinez	Ez
Kaito TB	Azpeitia	1986	Uhinez	Ez
Kanal On	Andoain	1988	Uhinez	Ez
Kateberria	Eibar	1994	Uhinez	Ez
Localia Gipuzkoa	Donostia	2001	Uhinez; Kablez	Localia
Mendaro TB	Mendaro	2002	Uhinez; Kablez	Localia
Oarso TB	Oartzun	1996	Uhinez	Ez
Teledonosti	Donostia	1994	Uhinez; Kablez	Vocento
Telesko	Eskoriatza	1985	Kablez	Ez
Txingudi TB	Irun	1997	Uhinez; Kablez	Localia
Urnietia TB	Urnietia	1992	Uhinez; Kablez	Ez
Urola TB	Urretxu	1998	Uhinez	Ez
Zarauzko TB	Zarautz	1991	Uhinez; Kablez	Ez

<b>NAFARROA</b>				
Buñuel TV	Buñuel	1996	Kablez	Ez
C.L. de Funes	Funes	1997	Kablez	Ez
C.L. Mendavia	Mendabia		Kablez	Ez
C.L.Arguedas	Argetas	1996	Kablez	Ez
Canal 4	Iruñea	1994	Uhinez; Kablez	Localia
Canal 6	Iruñea	2002	Uhinez; Kablez	Promecal
Canal Peralta TV	Peralta	1999	Kablez	Ez
Popular TV Navarra	Iruñea	2003	Uhinez	Cope
Ribaforada TV	Ribaforada	1999	Kablez	Ez
Tafalla TV	Tafalla	1996	Uhinez	Cadena Local
Tele Marcilla	Martzilla	1996	Kablez	Ez
Telecadreita	Kadereita	2001	Kablez	Ez
Telecaparoso	Kaparoso	1996	Kablez	Ez
Telecascante	Kaskante	1995	Kablez	Ez
Telefusti	Fustiñana	1996	Kablez	Ez
Telerrrebote	San Adrian	1996	Kablez	Ez
Ttipi-Ttapa TB	Bera	1997	Uhinez	Ez
TV Cirvonera	Zentroniko	1997	Kablez	Ez
TV de Milagro	Milagro	1996	Kablez	Ez
TV Villafranca	Alesbes	1996	Kablez	Ez
Valtierra TV	Balterra	1996	Kablez	Ez
Xaloa TB	Elizondo	1997	Uhinez	Ez

<b>IPARRALDEA</b>				
Anglet Web TV	Angelu	2000	Internetez	Ez
Baiona TV	Baiona	2000	Internetez	Ez
Kanaldude TB	Baigorri	2000-2002	Uhinez	Ez
TVPI	Baiona	2000	Internetez eta kablez	Ez
PaysBasque.TV	Bidarte	2003	Internetez	Ez

## 7. BIBLIOGRAFIA

- Agirre, J. (2003): “Telebista” , in *Euskal Herri Enblematikoa. Prentsa, Irratia eta Telebista*, Ostoa, Lasarte-Oria.
- AIMC (Asociaciones para la investigación de Medios de Comunicación) (2002): *Censo de Televisiones Locales*, Madril, AIMC <<http://www.aimc.es>>.
- Andoaingo Udala (2004): *Ramon Labaien. Euskal Telebista, hutsean sortua izeneko argitalpena*, Andoaingo Udala, Andoain.
- Arana, E., Azpillaga, P. eta Narbaiza, B. (2004): “Telebista lokalak Euskal Herrian”, *Jakin*, **141**, 11-52.
- Bardou-Boinier, S. eta Pailliar, I. (1999): “Francia: los actores nacionales ocupan la escena local”, in M. de Moragas, C. Garitaonandia eta B. Lopez, (arg.), *Televisión de proximidad en Europa*, UAB, Bartzelona, 207-237.
- Basterretxea, J. I. (1997): “Telebistak 25 urte Hego Euskal Herrian”, *Jakin*, **98**, 11-20.
- Bustamante, E. (koor.) (2002): *Comunicación y cultura en la era digital*, Gedisa, Bartzelona.
- Bustamante, E. eta Giu, I. (1988): “Televisión: desequilibrios en cadena”, in E. Bustamante eta R. Zallo (koor.), *Las industrias culturales en España*, Akal, Madril, 109-162.
- eta —————, (2002): “Televisión: errores y frenos en el camino digital”, in E. Bustamante, E. (koor.), *Comunicación y cultura en la era digital*, Gedisa, Bartzelona, 213-264.
- eta Zallo, R. (koor.) (1988): *Las industrias culturales en España*, Akal, Madril.
- Castilla, M. (koor.) (1997): *Euskal Irrati Telebista 1982-1997*, EITB, Bilbo.
- CMT (2002): “El mercado de la televisión en la Unión Europea” izeneko txostena. <<http://www.cmt.es>>.
- , (2004): “Informe Anual, 2003” izeneko txostena. <<http://www.cmt.es>>.
- CSA (1998): “Les chiffres clés du câble et du satellite. Les Bruchures du CSA”. [Mimeografiatua].
- , (2004): “Guide des chaînes thématiques” izeneko txostena <<http://ww.csa.fr>>
- Díez, R. (2003): *ETB. El inicio de una nueva era*, EITB, Bilbo.
- Dixit (2003): *Télévision 2003*, Editions Dixit, Paris.
- Eusko Jaurlaritz (1992): “Euskal Telebista. Informe” izeneko txostena. [Mimeografiatua].
- Fernández, E. (2002): *Las telecomunicaciones por cable: el negocio de la convergencia digital*, Nobel, Oviedo.
- GECA (2004): *El anuario de la televisión*, GECA, Madril.
- Ibañez, J. L. (1993): *Orígenes y desarrollo de Euskal Telebista (1982-1992)*, EHU, Leioa.
- IP eta RTL Group (2003): *Television 2001. European Key Facts*, Kolonia, IP.

- Lagardere Active Publicité (2002): “A.B.C de la Télévision” izeneko txostena <<http://www.lagardere-active-pub.com>>.
- Le Champion (1998): “Radio and Television in France”, in European Audiovisual Observatory, *Radio and Television Systems in the EU members states and Switzerland*, Strasbourg, European Audiovisual Observatory, 50-60.
- Le Flohic, G. (zuz.) (2003): *Les Médias*, Elenbi, Paris.
- Lopez, B., RIQUETE, J. eta Castelló, E. (1999): “España: consolidación del modelo autonómico en la era multicanal”, in M. de Moragas, C. Garitaonandia eta Lopez, B. (arg.), *Televisión de proximidad en Europa*, UAB, Bartzelona, 141-191.
- Palacio, M. (2001): *Historia de la televisión en España*, Gedisa, Bartzelona.
- Pricewaterhousecoopers (2003): “Entertainment and Media Outlook 2003-2007 EUROPE” izeneko txostena. <<http://www.pwc.com>>
- Ricaud, P. (2000): “Ipar Euskal Herriko hedabideen egoera”, in Nor Ikerketa Taldea, *Hedabideak eta Euskal Herria*, UEU, Bilbo.
- SGAE (2003): *Anuario de las artes escénicas, musicales y audiovisuales*, Sgae, Madril <<http://www.artenetsgae.com/anuario/anuario2003/home.html>>.
- Urretabizkaia, M. (2004): “La TDT en España. Nueva televisión, nuevos contenidos” izeneko txostena. [Mimeografiatua].
- Urteaga, E. (2004): *Les journalistes locaux*, L’Harmattan, Paris.

## 8. GEHIGARRIAK

### INTERESEKO WEBGUNEAK



ABSat <<http://www.absat.com>>  
 ACCES (Association des Chaînes du Câble et du Satellite) <<http://www.acces.tv>>  
 AFORM (Association Française des Opérateurs de Réseaux Multiservices)  
 <<http://www.aform.org>>  
 Anglet Web TV <<http://www.anglet-webtv.com>>  
 Antena 3 <<http://www.antena3tv.com>>  
 AOC (Agrupación de Operadores de Cable) <<http://www.aoc.es>>  
 Arte <<http://www.arte.fr>>  
 Auna <<http://www.auna.es>>  
 Baiona TV <<http://www.baiona.tv>>  
 British Academy of Film and Television Arts (BAFTA) <<http://www.bafta.org>>  
 Canal +E <<http://www.plus.es>>  
 Canal +F <<http://www.canalplus.fr>>  
 Canal 4 <<http://www.canal4.es>>  
 Canal 6 <<http://www.c6na.tv>>  
 Canal 9 <<http://www.rtvv.es>>  
 Canal Euskadi <<http://www.canaleuskadi.tv>>  
 Canal Satellite Digital <<http://www.plus.es>>  
 Canal Satellite Numérique <<http://www.canalsatellite.fr>>  
 Canal Sur <<http://www.canalsur.es>>  
 CLT (Compagnie Luxembourgeoise de Télévision) ikus RLT  
 CMT (Castilla-La Mancha Televisión) <<http://www.rtvcm.es>>  
 CMT (Comisión del Mercado de las Telecomunicaciones) <<http://www.cmt.es>>  
 Consell de l' Audiovisual de Catalunya <<http://www.audiovisualcat.net>>  
 Consejo Audiovisual de Navarra <<http://www.consejoaudiovisualdenavarra.es>>  
 COPE (Cadena de Ondas Populares de España) <<http://www.cope.es>>  
 CSA (Conseil Supérieur de l' Audiovisuel) <<http://www.csa.fr>>  
 Digital + <<http://www.cplus.es>>  
 EITB (Euskal Irrati-Telebista) <<http://www.eitb.com>>  
 European Platform of Regulatory Authorities <<http://www.epra.org>>  
 Euskaltel <<http://www.euskaltel.es>>  
 Forta (Federación de Organismos de Radio y Televisión Autonómicos)  
 <<http://www.forta.es>>  
 France Télécom Câble <<http://www.francetelecom.com>>  
 France 2 <<http://www.france2.fr>>  
 France 3 <<http://www.france3.fr>>  
 France 5 <<http://www.france5.fr>>  
 France Télévisions <<http://www.francetv.fr>>  
 K3/33 <<http://www.tvcatalunya.com>>

La Otra <<http://www.laotra.es>>  
 Lagardere Active Publicité <<http://www.lagardere-active-pub.com>>  
 M 6 <<http://www.m6.fr>>  
 NC Numéricâble <<http://www.ncnumericable.com>>  
 Noos <<http://www.cybercable.fr>>  
 Onda 6 <<http://www.onda6.com>>  
 ONO <<http://www.ono.es>>  
 PaysBasque.TV <<http://www.paysbasque.tv>>.  
 PaysBasque.TV <<http://www.paysbasque.tv>>  
 Popular TV <<http://www.populartv.net>>  
 PriceWaterhouseCoopers <<http://www.pwc.com>>  
 PRISA <<http://www.prisa.es>>  
 Proyección TV(gaztelaniaz <<http://www.proyeccion.tv>> eta euskaraz  
 <<http://www.euskaraz.tv>>  
 R <<http://www.mundo-R.net>>  
 Retecal <<http://www.reteca.es>>  
 Retena <<http://www.retena.es>>  
 Reterioja <<http://www.reterioja.es>>  
 RFO (Réseau France Outre-Mer) <<http://www.rfo.fr>>  
 RTL (Radio Television Luxembourgeoise)<<http://www.rtlgroupcom>>  
 RTVE (Radio Televisión Española) <<http://www.rtve.es>>  
 SGAE (Sociedad General de Autores de España; Fundación Autor)  
 <<http://www.artenetsgae.com/anuario/anuario2003/home.html>>  
 SNPTV (Syndicat National de la Publicité Télévisée) <<http://www.snptv.org>>  
 Tele 5 <<http://www.telecincio.es>>  
 Telecable <<http://www.telecable.es>>  
 Telefónica <<http://www.telefonica.es>>  
 Telemadrid <<http://www.telemadrid.com>>  
 Tenaria <<http://www.tenaria.es>>  
 TF 1 (Télévision Française 1) <<http://www.tf1.fr>>  
 TPS (Télévision Par Satellite) <<http://www.tps.fr>>  
 TV3 (Televisió de Catalunya) <<http://www.tvcatalunya.com>>  
 TVC (Televisión de Canarias) <<http://www.tvcanaria.tv>>  
 TVC (Televisión de Canarias) <<http://www.tvcanaria.tv>>  
 TVC Sat <<http://www.tvcatalunya.com/sat>>  
 TVG (Televisión de Galicia) <<http://www.crtvg.es>>  
 TVNT (Télévision Numérique Terrestre) <<http://www.tvnt.net>>  
 TVPI <<http://www.tvpi.fr>>  
 TVPI Pays Basque <<http://www.tvpi.fr>>  
 Unión deTelevisiones Comerciales Asociadas (UTECA) <<http://www.uteca.com>>  
 UPC France <<http://www.upcfrance.com>>  
 Via Digital <<http://www.via.tv>>